


**EUSKAL CURRICULUMAREN EGITASMOA**

**KONPETENTZIETAN OINARRITUTAKO  
HEZKUNTZA EREDUA**

**EBALUAZIOA**



# CURRICULUM DISEINUAREN OINARRIZKO ELEMENTUAK



# KONPETENTZIETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA EREDUA



## HEZIKETA PRAKTIKAREN ALDAKETA

Zertarako, zer eta nola irakatsi eta ikasirekin koherentzian

**Ikasmaterialak**

**Prestakuntza**



## Ebaluazioaren ikuspegia eta haren praktika aldatzea

Ebaluazioaren xedea.

Zer eta nola ebaluatu.

# KONPETENTZIETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA EREDUA EBALUAZIOAREN GARRANTZIA

Ikasleek, zailtasun handiz, irakaskuntza-praktika txar baten eraginetik ihes egin dezakete, baina ezin dute ebaluazio-praktika txar baten eraginetik ihes egin.

**Ebaluazioa**  
**Heziketa-praktikaren hobekuntzarako**  
**eragile nagusia**

# ZERTARAKO EBALUATZEN DUGU?

## Ebaluazioaren funtzioak

### 1.FUNTZIOA PEDAGOGIKOA: Ebaluazio formatiboa, hezigarria.

Prozesuan bideratzen da.

**Helburua:** ikaskuntza-prozesua erregulatzea, irakaskuntza eta ikaskuntza-prozesuan azaltzen diren lorpenak eta zailtasunak hautemanetz eta azken horiei aurre egiteko beharrezko aldaketak eginez.

**Kontuan hartzekoa:** beste ezaugarrien artean, ikaskuntza-erritmo eta estilo desberdineko ikasleak daudela gelan. Irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren hobekuntzarako bitartekoa.

#### **Parte hartzaileak:**

**Ikaslea:** ikasleak bere ikaskuntza-prozesua auto-erregulatzen ikasi behar du; bere ikasketak ebaluatzen, bere hutsegiteak hautematen eta horiei aurre egiteko irtenbideak bilatzen. Autoebaluazioa, koebaluazioa...

**Irakaslea:** ikasleari lagundu egin behar dio auto-erregulazio horretan behar diren bitartekoak baliatuz eta bideratzen duen irakaskuntza-prozesuaren auto-erregulazioa eginez.

# ZERTARAKO EBALUATZEN DUGU?

## 1. Ebaluazioaren funtzio pedagogikoa

### IRAKASKUNTZA ETA IKASKUNTZAREN AUTO-ERREGULAZIORAKO ARDATZAK

#### Hasierako ebaluazio diagnostikoa

Jasotako informazioak prozesuan aurreikusitako sekuentziak aldatzeko eta egokitzeko aukera eman behar dio irakasleari.

#### Prozesuaren ebaluazioan auto-erregulazioa indartzea

#### Auto-erregulaziorako ardatzak

- ⊙ Konpetentziari lotutako egoera eta zeregina/k azaltzea eta horiei buruz ikasleak egiten duen irudikapena egiaztatzea.
- ⊙ Auto-erregulazioa lantzeko bitartekoak baliatzea.
- ⊙ Ikaslea ebaluazio-irizpideetaz jabetzea.

# ZERTARAKO EBALUATZEN DUGU?

## 1. Ebaluazioaren funtzio pedagogikoa

Ebaluazioaren hezkuntza-zentzuari dagokionez, jauzi kualitatiboa eman beharra:

**Ikasitakoa ebaluatzetik ikasteko ebaluatzera aldatu behar da, ebaluazioa ikasketa gisa ulertuz.**

# ZERTARAKO EBALUATZEN DUGU?

## Ebaluazioaren funtzioak

**Ebaluazioaren bi funtzioak: hezigarria eta sumatiboa edo zertifikatzailea**

**Bata ez da bestea baino hobeagoa edo txarragoa, biak dira beharrezkoak, besterik gabe.**

**Arazoa bata besteari nagusitzen zaionean sortzen da, eta horixe da, hain zuzen, ebaluazio zertifikatzailearekin gertatzen dena.**

**Ez du zentzurik ebaluazio zertifikatzaile bat proposatzeak ikasleak arrakasta izateko prestatu gabe daudela aurreikusten denean.**



# KONPETENTZIETAN OINARRITUTAKO CURRICULUMA

## Zer irakatsi eta ikasi eta zer ebaluatu

### **KONPETENTZIEN BAITAKO EBALUAZIOA: aldaketa esanguratsua**

Ez da batezbestekoa eginez bideratzen.

Ebaluaziorako irizpide jakinei lotutako lorpen-adierazleen baitan bideratzen da.

Konpetentzia egoera bati aurre eginez erakutsi behar du ikasleak.

Konpetentziari lotutako egoerari aurre egiteko behar dituen edukiak/ezagutzak (kontzeptuak eta prozedurak) aurrez eskuratuta eduki behar ditu ikasleak.



**LORPEN-ADIERAZLEETAN DAGO GAKOA**